

BURU OSASUNAREN MUNDUKO EGUNA

PENTSAERAK IREKIZ,


ESTIGMAK ITXIZ

DÍA MUNDIAL DE LA SALUD MENTAL

ABRIENDO MENTES,

CERRANDO ESTIGMAS

10 URRIA
OCTUBRE 2014



2014-10-10

BURU OSASUNAREN MUNDUKO EGUNA

Buru Osasunaren Munduko Eguna urriaren 10ean ospatzen da urtero. Buru Osasunaren Mundu Federazioak (WFMH) bultzatzen du ekimena, eta munduko 100 herrialde baino gehiagok bat egiten dute helburu bera erdiesteko: herritarren artean buru osasunaren kontzientzia zabaltzea. Aurten FEAFES espainiar konfederazioak **'Pentsaerak irekiz. Estigmak itxiz'** leloa hautatu du; izan ere, osasun mentaleko arazoengatik inguruko ezagutza faltak eta aurreiritziek indar handia dute, eta buru nahasmendua duten pertsonen egunerokotasunean oztopo handienetarikoa dira.

Euskadiko lau elkarte biltzen dituen **FEDEAFESeko kideok lanean jarraitzen dugu gizarteak buruko nahasmenduak gehiago ezagutu eta uler ditzan.** Batetik, guztion interesekoa delako, bizitzako momenturen batean guk geuk edo gure lagun edo senideren batek izan dezakeelako arazo mentalen bat. Eta bestetik, buru nahasmendua duten pertsonen pairatzen duten diskriminazioari aurre egin nahi diogulako.

Estigma horren ondorioz, gaixotasuna duen pertsonak tratamenduari eusteko zailtasunak izaten ditu, lana topatzeko aukerak murriztu egiten zaizkio, eta harreman sozialetan ere oztopoak izaten ditu. Finean, **pertsonen oinarrizko eskubideak urratu egiten dira** zenbait arlotan.

"Pentsaerak irekitzeko" eta "estigmak ixteko" modu egokiena da gizarteak buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen errealitatea zuzenean ezagutzea. Hori dela eta, beharrezkoa da guztiok ulertzea **gaixotasun psikikoak beste edozein eritasun bezalakoak** direla, eta horrelako arazoak dituzten pertsonen askatasun osoz hitz egin dezaten bermatu behar dugula.

Zentzu horretan, Buru Osasunaren Munduko eguna egoera bikaina da gogora ekartzeko **buru gaixotasuna duten pertsona asko errekupeazio prozesuan borondate osoz aurrera egiten ari direla,** bidean aurkitzen dituzten oztopoak gaindituz.

FEDEAFESEN ADIERAZPENA

FEDEAFESek, buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkartean Euskadiko federazioak, aurtengo Buru Osasunaren Munduko Egunaren leloa aurkeztu du: **"Pentsaerak irekiz, estigmak itxiz"**. FEDEAFESek lau elkarte biltzen ditu, AGIFES Gipuzkoan, ASASAM eta ASAFES Araban, eta AVIFES Bizkaian.

Espainiar Estatuko elkarte-mugimendu osoak aukeratutako lelo horrekin gizartea sentsibilizatu nahi dugu, **buru gaixotasunaren inguruko estigmak kolektiboarengan duen eragin negatiboari buruz sentsibilizatzeko**.

Gaixotasun mentalak gero eta nabariagoak dira gure gizartean. Zehazki, **lau pertsonatik batek buru nahasmenduren bat izango du bizitzan zehar**.

FEDEAFESen aburuz, **buru osasunaren arloan egindako inbertsioek gaixotasun mentala duten pertsonen zainketen jarraitasuna bermatu behar dute**, euren errekupeazioan lagundu ahal izateko. Horretarako, tratamendu integrala eskaini behar da, ezinbestekoak diren neurri terapeutiko guztiekin (psikoterapeutikoak, psikosozialak, farmakologikoak...), pertsona bakoitzaren beharretara egokituz. Horri esker, errekupeazio hobea lortuko genuke, pertsonari autonomia gehiago emanez; eta gastu publikoa txikiagotuko genuke, partida garestienak asko murriztuko lirakeelako: ospitaleratzeak, larrialdi zerbitzuak eta farmakoak.

Pertsonak euren gertuko ingurunean barneratzea helburu duen esku-hartze eredu komunitarioa defendatzen du FEDEAFESek. Pertsona horiek euren komunitatean bizi eta gara daitezten bermatzeko, ezinbestekoa da baliabide eta laguntzetan inbertitzea. Eredu horrek pertsonaren duintasuna errespetatzen du eta gizarte estigmari aurre egiten laguntzen du. Gainera, buru gaixotasuna normalizatzeko lagungarria da, gizarteak beste gaixotasunen moduan ikus dezan ahalbidetzen baitu. Horrez gain, pertsona orok bere bizitzari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko aukera izan dezan aldarrikatu nahi dugu; bereziki, norberaren errekupeazioarekin zerikusia duten gaietan.

Estigma soziala arlo askotan dago presente, eta bereziki nabaria da lan munduan. **Buru gaixotasuna duten pertsonak dira laneratzeko zailtasun gehien dutenak**, desgaitasuna duten kolektiboen artean. Hori dela eta, pertsona horiei laguntzeko politikak aldarrikatzen ditugu, eta administrazioetatik lan babestuko programak abian jarri ditzaten eskatzen dugu. Izan ere, lanak buru gaixotasuna duten pertsonen bizitza normalizatzen laguntzen du.

FEDEAFESetik denbora asko daramagu azpimarratzen **buru gaixotasuna duten pertsonak ez dutela espetxeetan egon behar**. Pertsona bakoitzari dagokion zigorra esparru sanitario edo soziosanitario batean bete dadin eskatzen dugu, kasu bakoitzaren arabera eta beti ere pazientearen errehabilitazioa bermatuz.

Zentzu horretan eta **Zigor Kodearen erreformari dagokionez, erreforma proiektuaren kontra gaudela adierazi nahi dugu**, buru gaixotasuna duten pertsonak diskriminatu egiten baititu desgaitasuna edukitzeagatik. Gaixotasun mentala duen pertsona batek diagnostikoa ez duen batek baino denbora gehiago preso egoteko bidea ematen du proposamen horrek; eta, beraz, berdintasunaren printzipioa bezalako eskubide konstituzionalak urratzen ditu. Gainera, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Konbentzioarekin kontraesanean dago; eta esan behar dugu hitzarmen hori espainiar Estatuak 2008an berretsi zuela eta derrigorrez bete beharrekoa dela. Erreforma proposamenak kezkatzen gaitu eta, beraz, irmoki eskatu nahi dugu testu horretatik deusezta dezaten buru gaixotasunarekin lotu duten "arriskugarritasun" kontzeptua, ez baita zuzena. Horrez gain, segurtasun neurrietan proposatutako luzapenak ken ditzaten eskatzen dugu; eta arau berriak prebentzioa, gizarteratzea eta errekupeazioa ardatz izan ditzan aldarrikatzen dugu.

Ettxerik ez duten eta kalean bizi diren pertsonak ere aipatu nahi ditugu, horietako askok buru gaixotasuna baitaukate. Gurea bezalako gizarte batek horrelako kolektiboengana ere iritsi behar du, eta dagozkien zerbitzu sanitario eta sozialak eman behar dizkio, gainerako hiritarrekiko berdintasun eskubidea aplikatuz.

Aurten FEDEAFESetik 'Estigma sozialaren errealitatea EAEn buru gaixotasuna duten pertsonen artean' ikerlana aurkeztu dugu, eta bertan, estigmak gure kolektiboarengan dituen ondorioak jasotzen ditugu. Egoerari aurre egiteko proposamenen artean, **administrazioari eskatzen diogu lan-mahaia eta behatokia sortzeko**, estigmaren jarraipena egin eta berau gainditzeko ekintzak gauzatu eta emaitzak neurtuko dituen.

ELKARTEEN SENTSIBILIZAZIO ETA BIZIKIDETZA JARDUNALDIA

Urriak 18 - Laudio - Aldai plaza

*Asasam izango da elkarte anfitrioa

10:30

Euskal Autonomia Erkidegoko buru osasunaren arloko elkarteen **autobusei harrera** egingo zaie.

11:00

Jardunaldiaren irekiera ekitaldia LLodio Irratiko Iratxe Estrada kazetariaren eskutik: Agitariak eta elkarteetako ordezkariak hitza hartuko dute eta Azeripoto Trikitrixa Taldeak musikarekin girotuko du ekitaldea.

11:30

Los Arlotes taldearen **musika emanaldia**.

11:30 - 14:00

- Buru osasunari buruzko **informazioa standak**.
- Buru gaixotasuna duten pertsonak egindako **eskulanen erakusketa eta salmenta postuak**.
- **Txorizo eta odolki pintxo-pote postua**.
- **Haurrentzako ekintzak** Laudioko Kirikiño Taldearen eskutik.
- **Kirol ekintzak**: futbito partida, buru gaixotasuna duten pertsonen, senideen eta parte hartu nahi duten beste pertsonen artean. Athletic Club jokalaria ohi Txato Nuñez izango da arbitroa.
- **Musika emanaldia**: DJ Víctor.
- **FEDEAFESen eta elkarte bideoen proiektioak** buru osasunari buruz, estigmari buruz...
- ASASAMek bere 25. urteurrena dela-eta antolatu duen **Buru Osasunaren Aldeko II. Argazki Lehiaketako irudien erakusketa**.

14:30

Orduñarako autobusak irtengo dira. Han egingo da elkarte bazkaria.

15:00

Bazkaria Orduñako bainuetxe hotelean.

Dantza eta animazioa.

19:30

Etxera bueltako autobusak.

ELKARTEEN JARDUERAK

Fedeafes

Urriak 6

FEAFESek Madrilen antolatutako Buru Gaixotasunaren Munduko Egunean parte hartu zuen FEDEAFESek. Buru gaixotasuna duen pertsona batek, euskal elkarte-mugimenduan parte-hartze aktiboa duenak, bere esperientzia azaldu zuen.

Urriak 8

'**Buru Osasunean arreta publikoa bermatzearen defentsa**' mahaian parte hartzea, Osalderen eta OMEren eskutik, Bilbon.

Urriak 9

Prentsaurrekoa.

* * *

Buru Osasunaren Munduko Egunaren ospakizuna Zaballako presondegian, urrian zehar gauzatuko diren sentsibilizazio ekintzen bitartez.

Informazio hitzaldiak: 'Zigor Kodearen erreforma: buru gaixotasuna duten pertsonen eskubideen urratzea'

- **Irailak 24** Laudion, 16:00etan, Asasamen egoitzan (Tres Cruces 3), Asasamen lankidetzarekin.
- **Urriak 16** Gasteizen, 18:00etan, Bibat Museoan, Asafesen laguntzarekin.
- **Urriak 27** Donostian, 18:00etan, Ibiltzen Bentaberrin, Agifesen laguntzarekin.

asasam

Buru Osasunaren Aldeko Argazki lehiaketara aurkeztutako lan onenen **erakusketa**, elkartearen 25. urteurrenaren harira antolatua:

- Laudioko kiroldegia, urriak 20 eta 24 artean
- Amurrioko kiroldegia, urriak 27 eta azaroak 2 artean.

Urriak 22

17:30 - Hitzaldia: "Gazteen artean buru gaixotasuna prebenitzea. Droga-menpekotasuna" Hitzlaria: Gotzon Minguez Ojembarrena, psikologo klinikoa eta droga-mendekotasunean aditua.

Lugar: Laudioko Udaletxeko erabilera anitzeko aretoa.

asafes

Urriak 10

18:00 - Hitzaldia-solasaldia - "Alaskan zoriontsu izatea"

Hitzlaria: Rafael Santandreu, psikologoa eta idazlea / Lekua: Bibat Museoa. K/Cuchillería, 54

agifes

Irailak 28

III. 5 MILIA Buru Osasunaren Alde lasterketa solidarioa.

Urriak 9

18:00 - Mahai-ingurua 'Esperientziak partekatuz', Agifeseko erabiltzaileen parte-hartzearekin, Ibiltzen Bentaberri zentroan.

Argia Fundazioko jardunaldian parte hartuko du elkarteak bi hitzaldirekin:

- 'Erabiltzaileen parte hartzea eta autokudeaketa Aisialdi eta Denbora Libreko programan'
- 'Erabiltzaileen jabeakuntza bultzatuz: buru gaixotasuna duten pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzaren funtzionamendua'

Urriak 10

11:00-14:00 - Ate irekien jardunaldia Ibiltzen Bentaberrin. Lanen erakusketa eta lancha.

18:30 - Hitzaldia 'Egozgarritasun juridikoa buru gaixotasuna dagoen kasuetan'
Hizlaria: Iñaki Subijana, Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko presidentea.
Lekua: Legazpi (kultur etxea).

avifes

Urriak 4

Jaialdia Deustu-Bilbaoko La Salle eskolan, jokoekin eta herri bazkariarekin.

Urriak 7

AVIFESen Emakumearen Arloa aurkeztea, Emakunderen Berdintasun Foroaren baitan dagoen autobus ibiltarian. Ekimen horren helburua da AVIFESek buru gaixotasuna duten emakume eta gizonen parekidetasuna bermatzeko egiten duela lana ikusaraztea.

Urriak 10

Buru Osasunaren Munduko Eguneko ekitaldi instituzionala eta **Durangoko eguneko zentroaren inaugurazioa**, erakundeetako ordezkarien eta hirugarren sektoreko entitateen presentziarekin.

Urriak 17, 18 eta 19

Stand batekin parte hartuko dute Autonomiaren, Irisgarritasunaren, Guztiontzako Diseinuaren, Enpleguaren, Parte-hartzearen eta Bizi-kalitatearen erakusketan, BECen. Desgaitasun eta mendekotasun mailaren bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten sektore guztien topaketa da hori.

ZER DA FEDEAFES?

FEDEAFES **buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarten Euskadiko federazioa** da. Erakundea 1987an eratu zen eta, geroztik, kolektiboaren ordezkari gisa jardun du Euskal Autonomia Erkidegoan. 1998. urtean Erabilgarritasun Publikoa aitortu zioten.

Egun, EAEko **3.000 familia eta 9.000 pertsona** baino gehiago biltzen ditu. Gure entitatearen barne daude ASAFES (Araba), AVIFES (Bizkaia), ASASAM (Nerbioigoiena) eta AGIFES (Gipuzkoa).

Eginkizuna

Fedeafesen helburuak dira:

- Ikerketa, elkartrukea, ikaskuntza eta berrikuntza sustatzea buru gaixotasuna duten pertsonen eta familien bizi-kalitatea hobetzea bilatzen duten ekimenetan.
- Bizi Kalitate Ereduaren baitan dauden politikak eta esperientziak sustatu eta zabaltzea.
- Gaixotasun mentala duten pertsonen eta beren senideen duintasuna eta eskubideak defendatu eta aldarrikatzea.
- Gizartea sentsibilizatzea.
- Foroetan eta sareetan parte hartzea.
- Buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen aldeko politika publikoak exijitzea.
- Fedeafesen lana teorikoki Bizi Kalitate Ereduaren baitan kokatua dago, eta pertsonaren autonomia eta gaitasunak bultzatzearen alde apustu egiten du.

Elkarten zerbitzuak

Fedeafes mugimenduaren barne dauden elkarteak buru gaixotasuna duten pertsoneri eta senideei aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkiete. Herritarrek parte hartzeko espazioak dituzte eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen dituzte:

- Harrera eta orientazio zerbitzua
- Etxez etxeko arreta
- Familia esku-hartzea
- Eguneko zentroak eta errehabilitazio psikosozialerako programak
- Zaintzapeko etxebizitzak
- Laneratze programak
- Aisialdi programak
- Aholkularitza juridikoa
- ...

INFORMAZIO GEHIAGO



fedeafes

Tres cruces 14, behe,
01400 Laudio (Araba)
Tel: 94 406 94 30
E-mail: fedeafes@fedeafes.org
Web: www.fedeafes.org



asafes

Amadís, 2. (Sarrera, Blas de Oteron)
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel: 945 28 86 48
E-mail: asafes@asafes.org
Web: www.asafes.org



avifes

Santutxu, 40
48004-Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 4456256
E-mail: info@avifes.org
Web: www.avifes.org



agifes

Morlans pasealekua, 3 behe
20009-Donostia (Gipuzkoa)
Tel: 943 474337
E-mail: agifes@agifes.org
Web: www.agifes.org



asasam

Tres cruces 5 behe
01400 Laudio (Araba)
Tel: 94 4034690
E-mail: info@asasam.org
Web: www.asasam.org